

berriak

ziri

**MAITE
PAGAZAURTUNDUA
RUIZ**

PSE-EEko legebiltzarkidea



«Gero eta handiagoa da gaztelania ez dakiten edo gaztelaniar gaizki mintzatzen diren haurren kopurua»

EL DIARIO VASCO

ROMAN POLANSKI

Zinema zuzendaria



«Zinemagintzan Hollywood-etik urrun lan egitea automobilgintzan Detroit-etik kanpo aritzea bezala da»

EL MUNDO

FRANCISCO EGEA

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua



«Aldi baterako Laneko Enpresen espirtua gorde nahi dugu»

EGIN

CLAUDIO ABBADO

Musika zuzendaria



«Italia oso herri musikala da, baina oso antolakuntza txarra du, eta probintziakeria handia dago. Zaila da oso jendea ados jartzea»

LA VANGUARDIA

iritziak

zuzendaritari

OHARRA: Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko. Gutunak faxez, posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke (helbide elektronikoa: egunka 01@sarenet.es).

**Argia astekariko
zuzendaritzari**

Argiako harpideduna naizen moduan, eta beraz, etxe santu hau ekonomikoki eta moralki sustengatzen duenaren moduan, azkenaldian sortutako arazoei hitz eta arrazoiaren bidez irtenbidea emateko exijitzen dut, eta ez itxikeri eta inposizioaren bidez, orain arte bezala. Zeuek jakingo duzuen non dagoen afera guzti honen mamia, eta ez naiz horretan sartuko, baina ez dut nere etxean, Argia etxean gertatzen denaren aurrean begiak itxi nahi, beste harpidedun batzuk egin duten moduan. Usurbilgo harpidedun taldeari: zuek pagatzen duzuen etxea zuen etxea da, beraz ezin duzue beste aldera begiratu ezer gertatu ez balitz bezala.

Honekin batera, nere eskuetan dudana bakarria erabiltzeko erabakia hartu dut. Ez pentsa erraza izan denik, erabakia atzeratzen egon naiz orain arte, ea akzionisten batzarretik argi pixka bat sortzen zen

esperoan. Baina berririk ez dagoenez, uste dut harpidedunak esku hartzea behartuta gaudela, eta horregatik erabaki dut:

1- Nere harpidetzari baja tenporala ematea.

2- Argia-ko administrazio kontseiluari konponbide kontsentsuatu bat exijitzea.

Modu berdinean, harpidedun eta erosle guztiei posizionamendu bat hartzeko eskatuko nieke, oso inportantea baita momentu honetan Argia ikustea. Besterik gabe, eta nere erabaki hau Argia-ren onerako izango delakoan, agurtzen zaitue.

● Xabi Nabarro

AMAROTO (BIZKAIA)

**Bizkaian atxilotutakoak
askatu!**

Txabi laguna atxilotu egin dute. Txabi Aretxaga gure taldekidea da. Gurekin ibili zen, pairatu behar dugun egoera sozio-politiko auzitan jartzen duten beste talde batzuetan ibili zen gisara. Baztertutakoenganako elkartasuna bultzatu du beti, justizia soziala piztearren bere onenak ematen.

Ekimen berriztatzailetan jardun du aspalditik. Izan ere, Bilboko Gaztetxearen hastapenetan ibili zen, informazio alternatiboan parte hartu zuen Resiste nahiz beste argitalpen batzuen bidez, eta Likiniano kultur elkartearen zenbait une garrantzitsutan

kolaboratu zuen. Askatasunean eta elkartasunean oinarritutako eginkizun sozialaren aldeko makina bat ekimenetan aritu ondotik, askatasuna da, hain zuzen ere, ukatu nahi diotena Bizkaia komandokoa izatea leporatuz; Txabi, ordea, ez da ezeinena ez inongoa, bere buruarena baizik.

Operazioan ETA talde armatuko bi kide hil dituzte Bilbon maltzurkeria osoz, eta jokabide kritikoa izateagatik Estatuaren egiturei min egiten dieten hainbat lagun jazarri egin dituzte. Heriotza biok Ermuko izpiritua- ren ondorio zuzen-zuzenak dira; herritar bakoitzak burua makurtzea eta elementu sasi-polizial bihurtzea nahi dute. Hori dela eta, atzera egiten dugu luze, hipokrisiaz estaliko maskaradun diktaduraren garai beltzetara.

Txabik ez du merezi boterearen tresnarik ezkutuek asmatuiko gezur hau pairatzea. PPK bultzatu baina Euzko Alderdi Jeltzaleak eta osterantzeko alderdiek lagundutako zapalkuntza egoeraren biktima besterik ez da.

Txabiren eta gainontzeko guztien askatasuna eskatzen dugu, eta baita Estatu krimen hauek erabat argitzea. Modu berean, zentzu kritikoa duen ororen aurka gertatzen ari den jazarpen gordina salatzen dugu Resiste aldirik.

● Isaac Zubia

(Resiste aldirikaren izenean)

GASTEIZ



seiko urrea

Gorka Knörr**Elorrieta**

Elorrietak esandakoek hauts-zurrubilo ederra sortu dutela begien bistan dago. Batere harrigarri ez alderdi estatalistek agertu duten desadostasuna. Eusko Alkartasunaren adostasunetik beste muturrean, hain zuzen; harrigarri xamarra, Ardanza lehendakariak Elorrietari zuzendutako kritika, politikoen esparruan sartu ote den aitzakiz, zeren, azken finean, Lehendakariak berak Eusko Legebiltzarrean esandakoen errepikapentzat hartu baitaitezke Elorrietak salatutakoak. Bestalde, lerro hauek idazten ari naizen momentuan, EAJ-PNV-k ez du Elorrieta-

ren adierazpenei buruz inolako iritzirik kaleratu, baina, hasera baten behintzat, pentsatzekoa da ez direla EA-k esandakoetatik urruti ibiliko, nahiz eta Aznarren politika autonomikoa txalotzearen Ardanza Lehendakaria larru gorritan utzi duen buruzagiarengandik ezin den gauza haundirik espero. Auskalo, Arzalluzek ezusteko dextente ematen du eta.

Ez da nere asmoa Elorrietaren diskurtsoaren mamian sartzea, besteak beste, fededunei ebanjelioaren bentajak saltzea guztiz alperrikakoa baita, fede izpirik ez dutenei guztiz zaila den bezalaxe. Azken finean, ez dut uste nere egitekoa denik, politika munduan dabilzan predikariena baino. Aldiz, interesgarria litzateke aztertzea, zer dela-eta sortu den zurrubilo hori Elorrietak Estatuari buruz hitzegin duenean, eta, bestalde, zergatik, zenbaiten ustez, ezin duen sindikalista batek bere muturra holako gaitetan sartu.

Argi dago aspalditik iritziak berak baino askoz ere garrantzi handiago duela zeinek esan duen. Kataluniako presidentek askotan aipatu du estatutua garatu ezean katalandarrei subiranotasun gehiago eskeini lezaiekeen estatutu berean pentsatzen hasi beharko liritekeela. Gure Lehen-

dakariak beste horrenbeste esan eta adier esango luketen irratietako komentarietek (edo konbentarietek)! Inork kritikatu ote ditu Partit dels Socialistes de Catalunya-ko gazte-erakundeak behin eta berriz autodeterminazioaren alde egindako deklarazioak? Han hitzegin daiteke autodeterminazioaz eta Estatuaren agorpenaz; hemen, berriz, gai horiek aipatze hutsak Estatuaren oreka jartzen omen du kolokan.

Eta zer pentsa, berea eta besterena hartzeko ohitura duten politiko eta kazetariak, Elorrietari politikarien esparruan sartzea egozteari buruz?

Hemen ere, ikusteko jaiok gara. Espainiako sindikatu nagusiek bulda osoa daukate nonbait, gai sindikalez aparte edozein gai edo gertakari politikoz bere iritzia azaltzeko. Euskadiko sindikatu nagusia ez ordea: are gutxiago Estatu bera kolokan jartzen baldin badu. CCOO-k eta UGT-k lotsagabeki kritikatu dezakete FORCEMeko akordioa, askatasun osoa omen dute lan-arazoetan Estatuaren mugak non ezarri behar diren esateko. ELA-k -libra gaitzala Jainkoak!- ez. ELAK ez omen du buldarik gai politikoetan sartzeko. Euskalerriko elorriak lehendanik mokoia zorrotz nonbait.